

# ALAINE AGIRRE GARMENDIA



(Bermeo, 1990)


Idazle gaztea izan arren, eskarmentua du dagoeneko Alaine Agirrek euskal literaturan. Urruzuno Literatur Lehiaketan hainbat aldiz gailendu izan da, eta liburugintzan ere egin du bidea.

Haur literaturako hiru liburu argitaratu ditu azken urteotan, eta iaz, berriz, helduen literaturan lehen lana plazaratu zuen 'Odol mamituak' (Elkar, 2014).

Lizardi saria irabaztea, «inportantea izan da niretzat, sari garrantzitsua baita» esan zuen eskerrak ematen zituen bitartean Alaine. Bere lanaren inguruan berriz, «ipuinean kontatzen dudana benetan da autobiografikoa. Etxean mota guztietako animaliak eduki ditut beti eta gainera nire kulpa izan da horiek bertan egotea. Gure etxea benetan zen zoo bat» eta jarraian anekdota bat kontatu zuen, «lagun bati behin hamster bat oparitu nion eta denbora bat igaro ondoren deitu zidan esanaz hamsterra gaizki zegoela, tumore bat atera zitzaiola. Elkarrekin joan ginen albaiteroarengana gure txanpon guztiak bildu ondoren eta honek jakitera eman zigun kumedun zegoela, familia izango zuela. Honelako abenturak bizi izan ditut eta hortik atera nuen ideia».

Idazterakoan gai hau hautatzearen eran-tzule bere ama dela esan zuen, «berritoki idazteari ekin nionean haurrei zuzendutako ipuinak, amak behin eta berritoki esaten zidan, Alaine idatzi mesedez gure bitxueri buruz eta hori egin dut».

# X HIL DA



**X hil da, Alaine Agirre:** Hainbat arrazoi izan ditzake maitearen galerak: haren heriotza, ihesa, asperdura, traizioa...

bakoitza desberdina baina denak izugarriak bakarrik geratzen den maitalearentzat. Herio eta galbide bakoitzaren atze-aurre guztiak xeheki aztertzen ditu nobela honetako protagonista eta narratzaileak, intentsitate harrigarria lortzen duten pasarteetan, ikara berberak behin eta berriz exorzizatuz, obsesio baten bulkada eutsiezinaz.

Idazle iaio baten sena erakusten du Alaine Agirrek bere bigarren eleberri honetan, kontakizunaren erritmoa eta hizkuntzaren edertasuna trebezia handiz uztartzen baititu gai beraren inguruko bariazio hauek lantzean.

deia

## **Alaine Agirre: “Beti izan dut neure bizitza fikzionatzeko zaletasuna”**

**Atal laburrez osaturiko bakarrizketa baten gisan harilkatu du Alaine Agirrek ‘X hil da’, muturreko egoera batean barneko zurrunbiloa askatzeko balio izan dion nobela**

Maitasun baten obsesio ero bat”. Horrela laburbiltzen du Alaine Agirrek (Bermeo, 1990) X hil da bere azken eleberria. Aurrez haur-literaturako lan ugari argitaratua, iaz plazaratu zuen Agirrek irakurle bat baino gehiago harritu zuen Odol mamituak (Elkar) helduentzako bere lehen nobela, eta urtebeteko epean ondu du bigarrena, obsesio baten kontakizuna ez ezik, “bere idazteko moduaren aldarrikapen bat” ere badena. Zer da ‘X hil da’?

Maitea galtzearen beldurrari buruzko nobela labur bat da, honela laburtu daitekeena: pasio batek harrapatu du narratzailea; pasio hori maitasun bihurtzen da, eta maitasun horrek ikara dakarkio, azkenean obsesio bihurtzen den ikara.

‘X hil da’ esaldiarekin hasten da liburua, baina benetan hiltzen da X?

Egia da irakurleak ez duela argi X benetan hil den, bizirik dagoen... Liburuaren hasieran hil egiten da, baina gero ostera ere hiltzen da, beste modu batean. Jolas gisa har liteke, baina helburua ez da izan irakurlea nahastea, baizik eta kontagai den obsesio hori adieraztea ahalik eta gordinen eta bortitzen.

Gordina, zuzena, intentsoa da nobela. Idazketa bera ere halakoxea izan da?

Bai, guztiz. Inpultsiboa naiz izaeraz eta baita idazterakoan ere. Intuizioz aritzen naiz, horrela ateratzen zaidalako eta beste modu batean egiten ez dakidalako. Pazientzia falta zait seguru asko, edo literaturari buruzko ezagutza teorikoa. Une batean idazteko bulkada bat sentitzen dut, gai bat dabilkit buruan jiraka, horri buruzko ideiak, irudiak eta hitzak pilatzen doazkit gogoan, eta horri aterabidea topatu behar diot idazketaren bitartez.

Oka egitearen ideia askotan aipatzen da nobelan...

Bai, bai fisiologikoki, eta baita metafora moduan ere. Hau da, barruan daukadan zurrumbiloa guztiz atera nahi izaten dut idazteko orduan, gaiari zuku guztia ateratzeko, batetik, eta horrela liberatuta sentitzeko ere bai.

Badirudi gozatu beste sufritzen duzula idazten. Horrela al da?

Baietz esango nuke. Plazera eta mina batzen dira nire literaturan, eta sortzeko momentuan larritasuna eta angustia sentitu baditzaket ere, sorkuntzak berak izugarrizko poza eta betetasun-sentipena ematen dizkit.

Literaturaren ezagutza teorikoa falta zaizula diozu, baina 'Hau ez da Manifestu bat' atalean literaturari buruzko ideia batzuk plazaratu dituzu...

Idazten dudaren moduaren aldarrikapen bat idatzi beharra sentitu nuen, eta hori nobela honetan sartu beharra. 'Ez naiz exhibizionista hau idazteagatik', dio nobelako ahotsak, adibidez. Nondik datorkidan ez dakidan arren, beti izan dut neure bizitza fikziona-tzeko zaletasuna, edo beharizana.

Azkenaldian ni-aren literaturaz asko hitz egiten da. Zuk ere horren defentsa egiten duzu?

Niri, berez, ez zaizkit asko axola definizioak, kontatzen dudana irakuleari heltzea baizik. Nitaz idaztea zutaz idazteko modua da, dio liburuaren esaldi batek. Horretan sinesten dut.

Zer harreman du lan honek 'Odol mamituak' zure aurreko lanarekin?

Badira ezaugarri komunak: adibidez, atal laburretan zatikatzea, edo idazkera jakin bat, sentimenduak ahalik eta indartsuen transmititu nahi dituen eta hizkuntzaren poesia zaindu aldi berean; biak lehen pertsonan idatzita egotea... Desberdintasunak gaietan ikus litezke batez ere: Odol mamituak-en mina eta eromena dira gai nagusiak; X hil da-n, maitasuna, heriotza, ikara, obsesioa.

Obsesio hori papereratzea zaila izan al da?

Muturreko egoerak dira bi nobeletakoak, baina ez muturraren bila ibili naizelako, ezpada idazteko motibazioa edo beharizana hor aurkitu dudalako. Zaila edo erraza den... Nobela bat idazten saiatu den edonork daki ez dela egun batean lortzen den gauza; obra ederra burutzen ahalegindu naiz, eta irakurleak esan beharko du zenbateraino lortu dudana.

Urtebetean helduentzako bi liburu plazaratu dituzu. Uzta oparoa denbora gutxian.

Liburu bat amaitzen dudanean, batzuetan pentsatzen dut ez dudala besterik egingo inoiz, esan beharreko guztiak esanda dauzkadala. Gero, handik hilabete batzuetara, borborka hasten zait burua beste ideia batekin, eta ezin etsi berriz ere idatzi barik. Zaletasun bat baino gehiago, beharizan bat da niretzat idaztea. Bai literatura eta bai musika, behar-beharrezkoak ditut bizitzeko, arnasa hartzea legez.

Annie Ernaux eta Margerite Durasen aipu bana datoz liburuan. Beraien eraginik ba ote zure idazkerak?

Ez dakit. Ez naiz sistematikoa irakurtzen. Bolada batzuetan gutxi eta beste batzuetan asko irakurtzen dut, eta irakurketan bila-tzen dudana pasioa da, beteko nauen zerbait. Aipatu dituzun bi egileekin gertatu zitzaidan, baina ez bakarrik horiekin. Azkenaldian, adibidez, asko gozatu dut Elena Ferrante irakurtzen, eta orain Jasone Osororen 12etan bermuta nobelarekin.

Haur eta gazteentzako liburuak ere idazten dituzu. Zer darabilzu orain esku artean?

Aurten, haur literaturako liburu pare bat dauzkat argitatzeko: Txokolatzkoa izan nahi nuke kontakizuna, eta Martin albuma, Maite Gurrutxagaren marrazkiekin. Helduentzat ere badaukat zerbait esku artean, baina nahiago dut oraingoz gehiegi ez aurreratzea.

## BUSTURIALDEKO HITZA

# ZILARREZKO EUSKADI SARIA JASOKO DU ALAINE AGIRREK

**Merezi zuten oihartzuna izan ez zuten lanei** ematen dieten sariak dira, eta Gipuzkoako Liburu-denden Elkarteak banatzen ditu. Euskarazko eta gaztelarazko liburu bana aukeratu dute, “horien istorioak eta indarra kontuan hartuta”.

Euskarazko alorrean, Alaine Agirreren (Bermeo, 1990) *X hil da eleberria* saritu dute. Idazle bermeotarraren bigarren eleberria da; lehenengoa 2014an kaleratu zuen, *Odol Mamituak*. Jakinarazi dutenez, saria ematerako orduan, “idazkeraren edertasuna, prosaren erritmoa eta narrazioari darion errealismoa” eduki dituzte kontuan. Azaldu dutenez, “obsesio bati buruzko liburu bat da, modu obsesiboan kontatua. Idazkeraren gaztetasuna harrigarri gertatu da, halaber, literatur tekniken erabileragatik eta liburuak lortzen duen intentsitateagatik”.

Gaztelarazko alorrean, berriz, James Rhodes musikariak jasoko du saria *Instrumental* lanagatik.

**Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 5ean** egingo dute Donostiako Literaktum jaialdiaren baitan.

**X hil da** / [Alaine Agirre](#) / Elkar, 2015

Idatzi edo/ala hil Iraitz Urkulo / *Berria*, 2015-11-29

Alaine Agirre, gure literaturak duen idazlerik gazteena, badoa pixkanaka-pixkanaka baina urrats sendoz bere bidea eginez. Errekonozimendua haur literaturaren eskutik etorri bazaio ere —aurten Lizardi eta Lazarillo Sariak jaso ditu—, *Odol mamituak* eleberriak, egileak 2014an helduentzat idatzitako lehen liburuak, nahiko harrera beroa izan zuen irakurleen aldetik. Hala, bide arrakastatsuan aurrera eginez, Agirrek *X hil da*izeneko bere bigarren eleberria argitaratu du.

Ziurrenik motz geratuko nintzateke obraren argumentu-mailako originaltasuna aipatuz gero, baina tramaren abiapuntu gisa aukeratu duen gaia —maite duzun/zaituen horren heriotza— oso potentea eta, aldi berean, harrigarria da, inolako zalantzarik gabe. Testua morbotik edota zirikatzeke nahietatik aldentzen den arren, gaiaren lazgarriak halako deserosotasun goxo bat eragiten dizu. Hasierako ezustea gaindituta, neska protagonistaren diskurtsoa osoki hartzen duen zintzotasuna hain boteretsua da, non haren konplize bihurtzea beste aukerarik ez duzun, ezinbestean haren bizipenak eta minak sentitu eta partekatzeraino, irakurketak irauten duen bitartean harenak bakarrik ez, zureak ere balira bezala.

*X hil da* 1etik 41era bitarteko atal laburrez osatutako bakarrizketa bat da. Hartan, nabaria da irudi indartsuen —zenbaitetan gordinen— eta diskurtsoaren ezintasunaren arteko kontraste gustagarria. Sentiberatasunak gainezka egiten dio narrazioari alde guztietatik. Agirre egiazko espezialista da hitzak eta sintaxia modu ezin eraginkorragoan baliatzen intentsitate handiko diskurtso bat eraikitzeko. Esaldi luze eta laburragoak trebeki txandakatzen ditu, eta hitzak mimo osoz aukeratzen, kontaketa erritmo berezi batez jantziz. Berezia eta zeharo naturala, hura barneratu orduko, kulunka goxoan ibaiaren emari lasaiak nola, protagonistaren pentsamenduen jario agorrekin eramana sentitzen baituzu zure burua. Are gehiago, burua hitzezko uretan murgilduz gero, lerro bakoitza busti duen musikaltasuna entzun ahal izango duzu. Istorioak irudikatzen duen neskaren biluzte emozionalarekin batera, ezaugarri horiek guztiek eragindako lilurak azken orrialdera arte lotzen zaitu.

Alaine Agirre irudimen biziko eta sentsibilitate handiko idazlea da. Gaztea izan arren, berezko idazmoldea aurkitu duela ematen du, oso estilo markatua erakusten baitu. Liburutik haren izena ezabatuta ere, *Odol mamituak* irakurri duenak Agirre erraz identifika dezake *X hil da* lanaren autore gisa. Are gehiago, badira protagonista aurreko eleberriko neska bera dela pentsatzeko arrazoiak: ahuleziak agerian uzten dituen ahots bera; izaera zalantzati, sentibera, neurotiko, obsesibo bera... baita bere buruari min eragiteko joera bera ere. Egia da eleberri honetako ezaugarri asko dagoeneko *Odol mamituak* lanean topa zitezkeela, eta baliteke irakurleen batek arrisku handiagoak hartzea espero izana, batez ere egilearen bigarren obra baino ez dela kontuan hartuta. Baina, bestalde, zalantzarik ez da menperatzen dituen idazkera tekniken eraginkortasunaz, formulak ederki funtzionatzen diolako seinale.

Amaitzeko, adi epilogoaren funtzioa betetzen duten liburuko azken atalei, egile bati bere zereginaz, hots, idazletzaz inoiz irakurri diozun aitorpen zintzo, biluzi eta egiazkoena izan daiteke eta.

**X hil da** / [Alaine Agirre](#) / Elkar, 2015

Nitasuna ardatz Javier Rojo / *El Diario Vasco*, 2015-12-11

Alaine Agirrek gogoz ekin dio helduentzako literatura idazteari. Aurten ere irakurle helduei zuzendutako nobela labur bat eskaintzen du, “X hil da” izenburua duena. Atentzioa ematen duen lehenengo osagaia ahots baten presentzia da. Argumentuaren aldetik narratzaile bat aurkezten da bere maitalearen balizko heriotzaz hitz egiten. Baina maitalearen heriotza kontatzen duelarik, narratzailearen ahotsak berak inposatzen du bere presentzia, halako moduan non esan baitaiteke narratzailea bere buruaz aritzen den ahotsa baino ez dela. Maitalearen heriotza aitzakia, hitz egiten du, baina xehetasun gutxi ematen ditu, ia ez du kontatzen zein zirkunstantzian gertatzen den. Izan ere, heriotza horrek sortuko liokeen zirrara azaltzen du. Maitalearen heriotza balizko mundu batean planteatzen da, narratzaileak bere buruan eraikitzen duen posibilitatea baita. Heriotzaz obsesionatuta agertzen da, beraz, obsesio hau maitalearen heriotzaren posibilitatean gauzatzen delarik. Batzuetan ematen du ez duela berezko izaerarik, zeren behin eta berriro bere bizitza maitalearekin duen harremanaren arabera aurkezten baitu. Bere nortasuna bestearengan deuseztatze honek bizitzako zirkunstantzietan buruzko ia erreferentzia guztiak desagerraraztera eramaten du narratzailea, ohiko xehetasunak isilduz. Ez dakigu, adibidez, zertan betetzen duen heriotzaren obsesioak libre uzten dion denbora. Baina maitalearen heriotzaren aukerak aztertzen dituen bitartean, garrantzitsuena ez da beste pertsona hori desagertzea, desagertze horrek berarengan duen eragina baizik. Eta honekin erlazioa daitezke zeloei buruzko aipamenak. Heriotzaz obsesionatuta dago narratzailea, baina bestearen heriotza abandonu modukoa den aldetik, ia traizio bat. Horrela ikusita, maitasuna lotura itogarria da narratzaile neurotiko honentzat. Bestaldetik, balizko heriotzak sortzen duen zirrarez gain, idazketa bera du hizketagai, autofikzioaren gorespena egiteko.

Bizitza, heriotza, maitasuna eta literatura dira liburu honen ardatz nagusiak. Jainko paganoa dago orrion atzean bere maiteari, X-i, bizitza kentzen eta ematen. Mendebaldeko kulturen hamaika aldiz agertu zaigun Eros eta Thanatosen arteko tira-bira agertzen zaigu hemen berrituta.

Azalean eskaintzen digu protagonistak bere bihotza, edo X-en bihotza, nondik begiratzen den. Alde batetik narrazio autobiografikoaren bidez bere burua biluzten du, barruko desira eta munstroak erakusten dizkigu. Beste alde batetik bere maitatuari buruz hitz egiten digu, bera galtzea zer izango litzatekeen adieraziz, min gorriz.

Lan honetan hausnarketarako aukera ematen zaigu, heriotzari nola egiten diogu aurre, maite dugunaren galerak zer dakarren, doluaren prozesua nolakoa den, abandonua edota bakardadearen kudeaketa zelan egin daitekeen. Eta horrekin batera egungo harreman motak auzitan jartzen ditu muturreraino eramanez fantasia katastrofikoaren bidez. Pentsatuz, imajinatuz, zoratu gaitezke, obsesionatu, jelsiak jota amaitu. Zer da maitasuna? Nola bizi dugu? Zer ematen di(o)gu? Nekea, errua, nazka, beldurra, iluntasuna, menpekotasuna, sumisioa, autoanulazioa, sufrimendua... Hori guztia ere bai, ezta?

Maitasuna pasio eta obsesio gisa bizi dituen protagonistak bi idazle aipatzen ditu: Marguerite Durás eta Annie Ernaux, eta, bereziki, inplizituki, haien *Maitalea* eta *Pasio hutsa* liburuak aitortzen ditu iturri eta inspirazio, lan hauetan oinarriturik “sutsuki maitatzea” berarentzat zer den kontatzen digulako liburu honetan. Gainera, maitearen heriotzarekin, “maitasunaren hilezkortasuna” ere ezbaian jartzeko aukera ematen du, “maitasun erromantikoaren mitoa” agerian utziz nahi duenarentzat.

Liburuak 70 orri behar ditu, ez 700, modu trinko eta mamitsuan aipatutakoak mahai gainean paratzeko. Baina ez da hori bakarrik bertan topatuko duguna, egileak idazteari buruz uste duena ere agertuko zaigu. Berarentzat barrukoa askatzea da, bizitza fikzionatzea, literatura bihurtutako auto-analisia egitea. Modu horretan, besteen beldur eta mamuekin bat egin nahi du, bizitzak eragindako zauriei buruz idazteko beharra sentitzean horri bide eman eta paperean ipintzen du irakurlearengana hurbilduz, plazaratu berri den idazle baten hasierako “asmoen adierazpena” eginez.

Bere opera prima izan zen *Odol mamituak* (2014) eta jarraian etorri da *X hil da* (2015) “manifestua”. Larru-azala gorriz jantziz euskal letretan. Biluzik eta zikin agertzeko aldarri egiten. Ea zer datorren jarraian. Gu zain izango gaitu.

“Passion simple” (1994, itzul. “Pasio hutsa”, 2002) liburuan gizon ezkondu batekin izandako harremanak berarengan eragindakoen berri ematen digu Annie Ernaux idazle frantsesak. Hots, bere pasioaren objektua, gizon ezkondua alegia, baino gehiago pasioa bera da narrazioaren ardatza: zentsurarik gabe azaltzen dizkigun sentimendu eta pentsamenduak, kurtsia edo burutik jota egotearen inpresioa emateko inolako beldurrik gabe. Antzeko ariketa du oinarrian Alaine Agirreren “X hil da” lanak.

Egileak ez du Ernaux-en eragina ezkututzen. Aitzitik, “Passion simple” liburutik bertatik harturiko zita batekin abiarazten du bere lana: “Nire pasioa liburu bat idatziko nuen bezala bizi nuela iruditzen zitzaidan sarritan: idazten nuenean bezala, eszena guztiak taxuz burutu behar nituen eta xehetasun guztiez arduratu behar nuen. Eta pasio horren azken muturreraino iristen nintzenean —‘azken muturreraino’ horri esanahi zehatzik eman gabe—, hiltzea berdin izango zitzaidala bururatzen zitzaidan: testu hau idatzi ondoren hiltzea ere berdin izango zitzaidan”. Zita horrek laburbiltzen du Ernaux / Agirreren egitasmoaren muina: pasio bat bizi / idaztearen bidez idazketa prozesuaren beraren pasioa azalaraztea.

“X hil da”-k delako X-en baten heriotzaren aukerak narratzailearengan eragindako sentimenduak ditu hizpide eta aztergai. Galeraren alderdi materiala, jadanik ez dagoen gorputzak utzitako hutsune fisikoa, antzematen du narratzaileak lehenik, goizeko erritualen etena. “Ez dit gerritik heldu. Ez dut beraren arnasaren usaina sentitu neure ahoaren parean. Ez dit ilean laztan bat utzi. Ez dit erdi-lo dagoela muxurik eman, ilunpetan, ahoa aurkitu-ez eta bekain batean (ez du, hortaz, nire bekaineko ile bat irentsi). Ez dit, albo batera etzanda nagoela, atzetik oratu, bere eskua nire hankartean jarritz; epel. Ez dit, horrela gaudela, belarriaren haragian haginkada txiki bat eman. Ez ditu bere hankak nireekin endredatu, zeintzuk zeinenak diren ahantzita. Eta ez nau, goizero legez, ‘maitea’ esanez esnatu” (13). Jarraian dator galeraren alderdi psikologikoa, X betiko joan den kontzientzia hartzea, eta horrekin batera dolua. “Orain ulertzen dut zergatik janzten ziren beltzez dolua bizkar gainean, harri bat balitz bezala, zeramaten andreak. / Eta hala ere, hala ere ez dago hiltzen nauen tristura hau adierazteko lain den beltzik armairuan” (17).

X-en hiltzeko modu posible guztiak aztertzen ditu narratzaileak, “zentzuzkoak” zein zentzugabeak, dela auto istripuz, dela gaixotasun baten ondorioz, dela liburua eskuan burua apalaren kontra joz. Haietako bakoitzaren aurrean nola erreakzionatuko lukeen azaltzen du bere burua egoera horretan bertan jarrita, X-en galerak nola transformatuko lukeen munduarekiko duen pertzepzioa, galera X-ena ez ezik bere buruarena ere badela edo izango litzatekeela ondorioztatuz.

Heriotzak, bestearen ausentziak, harekiko sentitutako maitasun eta beharraz jabeazten du bizirik jarraitzen duena. Zentzu horretan, X-en heriotza eta hark eragingo lukeen hondamendia irudikatzea ez ote da X neurrigabeki maitatzearen sintoma?, galdetzen du narratzaileak. Hala ere, errudun sentitzen da X-en heriotza irudikatzeagatik. “Eta gorroto ditut pentsamendu hauek, ezertarako balio ez duten aukeraketa hauek, ilunago besterik bihurtzen ez nauen erabaki behar hau; baina ezin dut, ezin dut ekidin, ezin dut ez pentsatu horretan; X bizirik dagoen heinean hil egiten dela pentsatzea ebitatu ezin dezakedan modu berberean. Iluna da hori guztiori; iluna naiz. / Izuagatik ilun. / Eta nor ez?” (47).

Amaieran zera diosku narratzaileak, “[a]modio batek hartu nau, pasio batek inbaditu nau, obsesio batek okupatu nau. X du izena maite dudak gizonak. Eta bizirik dago. Nirekin. / Oraingoiz” (78). X-en heriotzaren aukerak eragindako pentsamendu zein sentimenduen biluztearen bidez, testua biluzik agertzen zaigu, errealitatearen (auto)fikzioa eta fikzioaren errealitatea azaleratuz.

# ODOL MAMITUAK



**Odol mamituak, Alaine Agirre:** Infernurako joan-etorri bat da liburu hau, Miren Agur Meabek hitzaurrean dioen moduan: emakume baten gaixotze mentala, ospitale psikiatriko batean sartzea eta sendatze neketsua, bere gordinean kontatuak, baina gogortasun horrekin batera samurtasuna eta umorea ere sartuz, tarteka.

Indar handiko idazkera erakusten du Alaine Agirrek bere lehenengo eleberri honetan, protagonistak bizi dituen esperientzia muturrekoak irakurleari bere azalean sentiaraziz; aldi berean, ordea, poesiara hurbiltzen den hizkera eder, estilizatu bat erabiliz.

Barruko isuri guztiak ageri dira kontakizunean zehar, eta gogoaren isuri bortitz baten itxura hartzen du maiz testuak; dena dela, bat-batekotasun irudi horren kontrastean, trebezia eta arretaz eraikitako obra bat sortu du egileak: A-tik Z-ra doaz pertsonaiak, 0tik 100era pasarteak, eta 1. pertsonatik 2. eta 3.era narrazioa.

## Argitalpenak

2014 Odol mamituak | Elkar

2015 X hil da / Elkar

## Haur eta gazte literatura

2013 Nire potxolina maitea | Elkar

2014 Letra txarra daukat, eta zer? | Elkar

2014 Nora joan da aitona? | Elkar

2015 Hau ez da zoo bat

2015 Martin






**Nire potxolina maitea, Alaine Agirre Garmendia, Eider Eibar Zugazabeitia:** Alaiak txixa egiten du gauetan eta ohea busti. Berak ez du nahi, baina ez daki nola ebitatu. Amak errieta egiten dio, aitak opari bat agintzen dio txixarik ez egitea lortuz gero, bere neba Danel bihurriak barre egiten dio, zirika.

Hautzaroan sarri izaten den arazo bati buruz idatzi du Alaine Agirrek, delikadeziaz eta hizkuntza landu batean.



Ipuin honetako protagonista artista da, berak horrela dio behintzat; bere eskuak nahi duena idazteko zein marrazteko askatasuna duelako daki hori. Baina horrek badu eragozpen bat: letra txarra dauka, eta eskolan nahiz etxean askotan egiten diote errieta horregatik. Hori ez da okerrena, ordea.



Iker handitzen ari den heinean, aitona txikitzen ari da. Hori esaten du amamak behintzat. Horregatik-edo, aitona erresidentziara eraman dute bizitzera. Etxekoak ezagutzen ez zituen plantak egiten hasi zenean erabaki zuten eramatea. Baina Ikerrek badaki txantxetan ari dela.

# Lizardi Saria Alaine Agirrek irabazi du 'Hau ez da zoo bat!' lanarekin

Alaine Agirre Garmendia (Bermeo, 1990) izan da XXXII. Lizardi Saria irabazi duen idazle gaztea. Ostegun arratsaldean, Liburuaren Egunarekin bat egin da, Sanz Eneako haur liburutegian ekin zitzaion sari banaketari eta bertan egon ziren irabazlea, Alaine, alkatea, Juan Luis Illarramendi, Kultur zinegotzia, Gari Berasaluze eta epaimahaikideen ordezkari gisa Txiliku.

Denera hamazazpi lan aurkeztu dira aurtengo lehiaketara eta epaimahaia Jesus M<sup>a</sup> Olaizola 'Txiliku', Miren Agur Meabe, Iñaki Frieria eta Ramon Olasagastik(iazko irabazlea) osatu dute. Txilikuk hitza hartu zuenean adierazi zuen «niri galdetu izan ohi didate nire ipuinetan animaliak zergatik sartzen ditudan eta eran-tzuten diet konturatu gabe azaltzen direla. Baina Alainen ipuinean nahiz eta izenburuak 'Hau ez da zoo bat' esan, animalia asko azaltzen dira, alaiak dira, egoera barregarriak sor-tzen dituzte, umorearekin egin da daude eta epaimahaian izan genituen halako gorabehera batzuk bat nabarmentzean baina askenean esku artean dugun ipuina aukera genuen eta hori ona da zeren maila ona izan dela sariketan agertzen du».

3.700 euro jaso ditu Alainek sari gisa eta bere lana argitaratu egin da. Beti bezala, Zarauzko ikastetxeetan doan banatuko ditu liburuaren 2.500 ale ikasleen artean Kultura Sailak.



Hau ez da zoo bat!. Agirre Garmendia, Alaine / Lopez de Muniain, Iratxe (IL.). Malenek betidanik nahi izan du animaliaz inguraturik bizi, baina kaleko pisu batean ez da erraza, eta gurasoek ez dituzte ikusten eragozpenak baino. Oztopoak oztopo, Malenek aurrera egingo du. Lehenengo, ikasgelako landare eta animaliak zainduz. Gero, andereño Anak oparitutako arrain pareta gobernatuz. Eta ondoren etorriko direnak◀

Abenturaz, umorez eta samurtasunez beteriko istorioa idatzi du Alaine Agirrek, animaliek ematen duten poza eta, era berean, eskatzen duten ardura erakusten dituen, eta liburu honek irabazi du haur literaturako Xabier Lizardi saria.

# *Odol mamituen bide itxia*

## **Miren Agur Meabe**

Zer ote da izugarriago asaldura kontrolaezin bat pairatzea baino, horren zantzuak, besteak beste, itomena, konbultsioak, ondoeza gainditzeko ziurtasun eza, minaren aldaera guztiak eta erru-sentimendua direnean?

Odol mamituak infernurako joan-etorri bati buruzko narrazioa da. Bide latz horretan emakume gazte bati sortzen zaizkion galderen berri jasoko du irakurleak, txunditurik so egiteko buruko gaixotasunaren eta sen onaren arteko borroka desorekatuari.

Protagonistak, A-k, bost ibiltartetan deskribatzen du bidaia. Ohean preso dagoela abiatzen da, bere etsaiaren defiriaz emanaz: “Gorria da”. Gorria da –odola eta sua bezala–, beragan arantzak, iltzeak, kristal eta metal zatiak dituen zer arrotz eta harrotu hori, gorputzean etengabe hedatu eta irteerarik aurkitzen ez duena, zergatik eta bere jabearen baitan dagoelako, jabea bera delako. Eromena norberaren baitako mehatxua denean, hiru aukera baino ez daude: edo bertan disolbatu, barne-ekaitzean galduz; edo ahal bestean igeri egin, etsipenaren zurrunbiloan ez itozteko; edo bidea zabaldu ihes egin dezan, adibidez, zainak ebakita. Desesperazio horrek Maupassanten gau ankerra ekarri dit gogora, hark ere, kanpoko zen zerbait bere barruan kokatuz zihoala sentituta, hainbat aldiz egotzi nahi izan baitzuen bizarra mozteko labanaz lepoa moztuta. Baina nola egiten du batek igeri ur-azalerantz iluntasunari beldur dion haurra legez sentitzen bada, bere burua irudimenaren bitartez torturatzen badu eta, aldiz, bihotza lotan badu? Batzuetan ia ezinezkoa gertatzen da bizitzari aurre egitea.

Bigarren tartean, A-k bere egoeraren kanpo-definizioa jasotzen du, diagnostikoa: “Psikosia da...”. Erlojuak denbora neurtzeko kapaz ez diren ingurune batean, narratzaileak ikuspuntua aldatuko du lehen pertsonatik bigarrenera, bere izateari beha dagoen A-ren pasibitate tenteldua islatzeko. Badira ohe bat, uhel eta guztikoa. Burdin barrak leihoetan. Plastizkoko pazientzia eta elefante-sudurra duen mediku bat. (Zergatik ote du psikiatrak elefante-tronpa sudurraren orde? Agian, arketipoei kasu eginez gero, elefanteak sendotasuna, memoria ona, egonarria eta jakituria adierazten dituelako, eta sugearen –kaosaren– etsaia delako?). Lixibaren usaina. Korapiloak burmuinean. Begiak irekitzea galarazten duten botikak; loezina, berba egiteko moteltasuna eta larde-jarioa eragiten duten botikak; apetitoa neurritz gain kilikatzen duten botikak. Isiltasuna. Talde-terapia. Paziente-katalogo bat eta haien errebeldia xaloa... Beste kartzela mota bat, azken batean, eta bertan A, bere arrainontziak eztanda noiz egin zuen ez dakiela, noiz hautsi zen bere munduaren kristala. Norena da errua? Zein da desorekaren jatorria? A osatzen duten A guztietatik, zeinek bultzatu ditu beste guztiak paradero horretara? Errailetatik irtendako trenentzako geltokia da ospitalea, eta A-k nahi luke behin betiko helmuga izatea, burbuila babesgarri berri bat, beldur delako ustelak betiko iraungo ote dion errailetan. Hirugarren txanpa. A-k, arestian pertsianak goratzeko kemenik izan ez eta bere inguruan mundua biraka ikusten zuenak bera elbarrituta –eritasunak azpiratuta– zegoen bitartean, bigarren hasierari ekingo dio: “Hasiera, begirada zure barrura daramazun unean hasten da”. Hoberantz egin du, nahiz eta ospitalerako osteretan oraindik ere kiratsa arnasten eta mamuak ikusten jarraitzen duen. Jarraitzen du, horrenbestez, ez jakitearen eta ezgai sentitzearen kontzientzia mutiladorearen zama sufritzen. Oroimen-ariketa egiteko ordua da, atzera begiratu eta “nire itzalean arrastaka daramatzadan harriak” zein diren bereiztekoa. Nolakoa zen A eta nola bizi zen eritasuna azaldu aurretik? Perfekzionismoa. Anorexia. Nerabegaroko zauri sendatugabeak. Sexu-identitatearen zirrikituak. Antsietateak eraginiko egite-desegite akigarria. Bulimia. Terapia alternatiboak. Gorputz aldatua, hogeiki kiloko propina. Ordua da antipsikotikoak puzzlearen arrakalak itsatsiko dituen porlan moduko bat direla onartzeko.

Desiraren taupada ibilbide guztian ozena bada ere –A-k ekintza arrunten irakurketa sexuala egiteko joera du: bi zigarretaren arteko amodio-aferra ikusten du batak bestea muturretik piztean, kasurako-, sexu-pultsioak toki handiagoa hartzen du laugarren geldialdian: “Bihotza eta klitoria goseturik zeuzkan”. Gorriak jan du jada A-ren barrua osorik. Akaso A-k bide labur eta errazena aukeratu zuelako; alegia, bere burua ez maitatzea? Horregatik igartzen al da uneoro maitasun-erregua? Orain “nia” eta “zua” bazterrean geratuko dira “hura” sartzeko, distantzia behar da-eta A-ren amorante-bilduma hoztasunez erreparasatzeko. Errealitatearekiko haustura, oraingoan, ametsen eta fantasia erotikoen bitartez gauzatuko da. Eta nahitaez otutzen zaigu hurrengo galdera: zenbaterainoko eragina izan dute zorigaiztoko amodioek A-ren gaixotasunean? Protagonistak behar-beharrezkoa du bere buruari errieta egitea muga barik maitatzeagatik eta maitasuna bere bizitzaren grabitate-zentrotzat hartzeagatik. Hala ere, hiltzeko beldur da orain: ohartu da merezi duela bizitzea.

Eta bosgarren geldialdian, puzzlea osatzeko unea eta azken galdera: Nola bizi liteke betiere agonia etengabeen bizi dena? Beste hitz batzuetan: Zein da odol mamituaren patua? Alaine Agirreren idazkera kalifi katu behar izatekotan, esango nuke, lehenik eta behin, idazkera organiko-anatomikoa dela, edukia guztiz blaiturik dagoelako usainez, jariakinez, korrokadaz, behazunez, malkoz, gonbitoz, gihardardaraz eta higidura errefl exuz. Gorputza eta haren atalak dira gertaeren subjektu eta objektu aldi berean, eta jarrera horretan uztartzen da naturaltasunez protagonistaren begirada krudela, xehetasun zatarrak urritzen ez dituen. Bere buruan itsusia ikusita, hala agerrarazten du.

Beste alde batetik, flashen bidezko idazkera dugu; hots, atal laburren kateaketa, zeinetan irudiek garrantzi handia duten. Irudiek badute, batzuetan, metafora indartsuaren biribiltasuna; besteetan, gogoeta baten destilazioa dira; edo narrazioaren osotasuna laburbiltzeko ahalmena dute; edo surrealismoaren ñabardura preziosistak dituzte...

Egileak hainbat hizkuntz baliabide erabili ditu A-ren errealitate psikologikoan borborka ari diren gatazkak adierazteko. Iruditu zait sinonimo-zerrendek haluzinazioen itsasgoran hitz zehatza hautatzeko zailtasuna adierazten dutela; justaposizioak bat datozela pentsamen aldrebestuarekin; barne-monologoak ideien jario nahasia erakusten digu; eta errepikak, aldika-aldika testuan ziprztindurik, protagonistaren borondatea, aieruak eta sentipenak berresten dituztela desorientazioaren erdian.

Izan ere, zein da amildegia: eromena ala beldurra? Ala eromenarekiko beldurra?

- See more at: <http://postdata.elkar.com/2014/10/08/alaine-agirreren-odol-mamituak-miren-agurmeaberen-hitzaurrea/#sthash.tRWWveK4.dpuf>

## ALAINE AGIRRE (HAUR LITERATURAKO IDAZLEA):

### “22 URTE BEHAR IZAN DITUT NIRE LEHEN LIBURUA IDAZTEKO”

Gaztea da, baina dagoeneko liburu bat du kalean, eta bigarrena argitaratzeko ez du asko falta. Zenbait hilabetetan sei bat ipuin idatzi ostean, batzuk kaxan gorde ditu, baina *Nire potxolina maitea* kalean dauka Alaine Agirrek (Bermeo, 1990). Bat nahikoa ez, eta bigarrena ere bide beretik doa, maiatzean kaleratuko baitu. Biak ala biak haur literatura dira; dena den, helduentzako zerbait ere badu esku artean bermeotar gazteak.

#### **Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?**

Txikitatik idatzi izan dut; beti izan dut-eta gustuko. Eskolako jolas orduetan liburutegira joaten nintzen irakurtzera, eta bide horretatik jarraituz, idazten hasi nintzen. Beti idatzi izan dut nire kabuz, eta niretzako; dena den, irakasleek herri mailako lehiaketetan, Urruzuno lehiaketan... parte hartzea sustatzen zuten. Parte hartu, eta sariak irabazten hasi nintzen. Hala ere, niretzako idatzi izan dut beti, eta ondoren hartu dut kaxan gordetzeko eta argitaratzeko erabakia. Lehiaketako oinarriekin bat eginez gero, aurkeztu egiten nuen lehiaketara. Dena den, lehiaketena gauza arraroa da.

#### **Arraroa zergatik?**

Irabaziz gero, idaztera animatzen zaitu, baina bere arriskuak ere baditu. Izan ere, behin irabazita, hurrengo mailako lehiaketa ere irabaztea espero du jendeak, eta hori da txarrena.

#### **Izenburu berezia du zure lehen liburuak.**

Bermeon berba berezia da ‘potxolina’; esanahi praktikoa du, baina beste esanahi batzuk ere baditu: pertsona potxolatxoari esaten zaio, izen maitakorra da...

#### **Nori zuzendutako liburua da *Nire potxolina maitea*?**

Elkar argitaletxearen arabera, 8 urtetik 10 urtera bitarteko umeei zuzendutakoa; dena den, nik 8 urtetik gorakoentzako liburua dela esango nuke. Nik, esaterako, ez ditut 10 urte, eta haur literatura irakurtzen dut. Beraz, edonorentzat izan daiteke.

#### **Zuk idatzi duzu, baina ilustrazioak Eider Eibarrek egin ditu, ezta?**

Bai, hala da. Argitaratutako prozesuan, marrazkiak Eider Eibarrek egitea gustatuko litzaidakela esan nuen, eta kasu egin zidaten. Bere marrazkiak ikusiak nituen haur literaturako liburuetan, eta gustuko nuen bere behar egiteko modua. Orain ikusten dut marrazkiak eta testua ondo lotu direla.

#### **Zer dela-eta idazten duzu?**

Beharizan bat da. *Nire potxolina maitea* idatzi orduko haurrentzako beste ipuin batzuk idatziak nituen. Horiek idatzi aurretik, dena den, bi urte izan naiz ezer idatzi gabe, ez delako izan nire garairik onena. Esne barik bizkotxo bat irensten duzunean eztarrian geratzen zaizun korapilo hori bezalakoa izan da garai hori niretzako. Ondo edo txarto idazten dudana esateko beti izango da jendea, baina nik horri ez diot begiratzen. Argi dago liburu bat argitaratzeko gutxieneko maila eduki beharra dagoela, baina nik ez diot horri erreparatzen. Idaztea gustuko dudala ikusten dut, behar dudala.

## **Zer kontatzen du liburuak?**

Alaiak –ipuineko protagonistak– arazotxo bat du; beste askok legez, berak ere txiza egiten du ohean. Horrean aurrean, bere nebak zirikatu egiten du, amak errieta egiten dio eta, txiza ohean egiteari utziz gero, aitak hitzematzen dio opari bat egingo diola. Alaiak, baina, ez du ulertzen nolatan utz diezaiokeen txiza egiteari, nahigabe egiten duelako. Azkenean, irtenbide bat aurkitzen du: bere ‘potxolinari’ berba egiten hasten zaio, xamurtasun askogaz, modu maitekor batean.

## **Egungo umeak ipuinaren istorioagaz identifikatzea bilatzen al duzu?**

Nik Alaiaren egoera bera bizi izan dut, eta ume askori gertatzen zaien gauza bat da. Badakit ume asko identifikatuta sentituko direla, baina ez da nire asmoa inori ikasbiderik ematea. Sarritan haur literaturaz pedagogikoa izatea espero da, ikasbideak ematea... Baina niretzako garrantzitsua literatura egitea da; ez dakit nik egiten dudana literatura ote den, baina saiatu, behintzat, saiatzen naiz.

## **Bermeoko Luma liburudendan aurkeztu zenuen liburua.**

Oso gustura sentitu nintzen, eta jende nahikoa batu zen. Oso egun polita izan zen, baina beti sentitzen da bertigoa. Liburutegian aurkezteko ere esan zidaten, baina bigarren liburua kaleratzerakoan biak aurkeztuko nituela esan nien, bestea maiatzean kaleratuko dut eta.

## **Zer dela-eta bertigoa?**

Liburua argitaratu zidatenean ez nintzen ondorioei begira jarri. Ez da beste munduko ezer, ipuintxo bat besterik ez da, baina ez nuen pentsa ez zenbat umek irakurriko zuten, ezta zurekin – Hitzako kazetariarekin– izango nintzenik elkarrizketa egiten, ezta liburuaren aurkezpenak egingo nituenik... Jauzi egin nuen jakin barik non bukatuko nuen; hala ere, pozik nago.

## **Liburuaren emaitzarekin ere pozik al zaude?**

Bai, pozik nago. Zerbait idazten dudanean beti pentsatzen dut ez duela ezertarako balio; baina denbora pasa ahala, lortu dut ipuina gustatzea, bai eduki aldetik, eta baita Eider Eibarren marrazkiengatik ere.

## **Idazle askok liburu bat amaitu bezain pronto beste bat dute buruan. Zuri ere gauza bera gertatu al zaizu?**

Ipuin bat argitaratu arren, ni ez naiz idazlea. Bestalde, udan idatzi nuen Nire potxolina maitea, eta horrekin batera beste hiru-lau; horietako bat maiatzean argitaratuko dudana. Beraz, lehenengo liburua argitaratu zen momentuan bigarrena zuzentzen aritu ziren. Halaber, Elkarrek ilustrazio lehiaketa bat egiten du eskola eta ikastola mailan, eta horretarako nire ipuina (Letra txarra daukat, eta zer?) aukeratu dute, gero umeek eduki hori irakurrita marrazkia egin dezaten.

## **Haur literaturaz gain, beste estilo batzuk jorratzen al dituzu?**

Hilabete batzuetan haur literatura baino ez dut idatzi; geldiezinik ibili naiz. Hala, guztira, sei bat ipuin idatzi ditut; batzuk kaxan gorde ditut. Dena den, duela hilabete pare batetik helduentzako ipuin bat idazten nabil. Ez dakit azkenean zein formatu izango duen, luzatzen doalako kontua.

## **Ipuinak idazten dituzu, baina ez duzu zure burua idazletzat.**

Gaur egun idazle berba erraz erabiltzen da, eta ni ez naiz idazle sentitzen; ez oraindik, behintzat. Beharbada etorkizunean idazle izan naiteke, baina ez dut horretan pentsatzen. Oraingoz dakidana da idatzi gura dudala.

## Idazteko inspirazioa nondik dator kizu?

Galdera horrekin batera, sarritan galdetu izan didate ea zenbat denbora behar izan dudan ipuin bat idazteko. Nire lehen liburua idazteko, esaterako, 22 urte behar izan ditut. Inspirazioa, bestalde, bizitzatik dator kit, gertatzen diren gauzetatik, bizi ditugun gauzetatik, entzuten ditugun gauzetatik, musikatik, beste ipuin batzuetatik, barruko txokoetatik... Hau idazteko puntu batera ailegatu behar izan naiz, baina puntu horren aurretik bide bat izan da, eta bide horretan aurkitu ditut inspiraziorako modu ezberdinak.

### **Odol mamituak / Alaine Agirre / Elkar, 2014**

#### Odol mamituak Usua Alberdi Fernandez / *Aizu!*, 2014-12

Neska baten joan-etorriari heldu dio Alaine Agirrek lan honetan: eromenerako joanaldia eta hortik at bizi direnen normaltasunerako etorraldia. Edozein izan liteke neska hori, edozein herri, hiri edota herrialdetakoa, izenik ere ez baitu, ezta adin jakirik ere. Halere, nabari zaio gaztea dela, erotzera eraman zutenak kontatzen dituenean, batez ere, baina baita bizitzaren aurrean erakusten duen eskarmentu ezagatik ere.

Hain zuzen, litekeena da irakurleak eromenaren beraren deskribapenez kanpoko datu gehiagoren falta sumatzea, neskatoak bizi izandakoak sakonago ezagutzeko gogoz geratzea. Izan ere, izenburuari fidel, odolari hertsiki loturiko liburua baita hau; odolari eta haragiari, sentsazio fisikoei, nagusiki. Psikosia, buru eta gorputzean eragiten dituen sentipenak, oso modu grafikoan ematen ditu aditzera protagonistak (adibidez, sinonimoak barra-barra baliatuz), batik bat 1. pertsonan kontaturiko pasartean. Beranduago, 2. eta 3. pertsonak ere erabiliko ditu, gaixotasunetik aldendu eta bizimodu arruntagora gerturatu ahala... hizkuntz aldetik nolabaiteko aldaketa dakarrena, apur bat errazagoa, samurragoa-edo, bilakatuta. "Gorrito ditut emozio moderatuak" aipamena dago liburu hasieran, beraz, laburbilduta, horretan bat etorri eta eromenak zer dakarren jakiteko ausardia edo barrena duen irakurleari, behintzat, ez dio hutsik egingo.

### **Odol mamituak / Alaine Agirre / Elkar, 2014**

#### Psikosia Iraitz Urkulo / *Berria*, 2014-12-07

Alaine Agirrek psikosia jotako emakume gazte bat aukeratu du helduentzat idazten duen lehen eleberriko protagonista gisa. Haren eskutik, gaixotasunaren iluna eta, psikiatrikoan egindako egonaldia eta terapia tarteko, sendatzerainoko bidea ibiliko dugu. *Ni*-tik eraikitako literaturaren bide bihurtuak, hain zuzen. Istorioaren abiapuntua eta amaierari dagokienez, misterio handirik ez da, beraz, horiek jadanik kontrazalean irakur daitezke eta. Hobe zuketzen, alde horretatik, Miren Agur Meabek liburuaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dituen hitzaurrea hitzatze bihurtu izana, benetan lastima baita gehiegizko informazioak irakurketa gatzgabetzea; are gehiago, halako hasiera indartsua zapuztea.

Lana bost atalek, guztira 100 pasarte laburrek osatzen dute. Denetan izenik ez eta A batekin identifikatzen den protagonista da beti fokua. Narratzailea, berriz, lehen pertsonatik bigarrenera eta, azkenik, hirugarrenera igarotzen da. Egitura garbia du, hortaz, liburuak. Ordenatuegia, agian. Gaiekin ere antzeko inpresioa nagusitu zait, gaixotzea, sendatzea eta sexura mugatzen direlakoa, alegia, baina sekula elkar ukitu gabe. Badirudi egileak gai bat aukeratu eta, hori sakonki landu ondoren, behin hura agorturik baino ez duela hurrengorako urratsa egin nahi izan.

“Idazkera organikoa” aipatzen du Miren Agur Meabek. Literaturan txertatutako korporalitatea, hots, gorputzaren bidezko hizkuntzaren adibide bikaina, gehituko nuke. Gordintasuna eta irudi indartsuak baliatuz, Agirrek protagonistaren eldarnioa eta ezinegona kutsatzen dizkigu. Izan ere, minaren espresio fisikoa hain da errealia, non sentitu ere egin daitekeen, arnasbiderik gabeko pasarte itogarrietan, intentsitateari mailarik gorenean eusten dioten horietan, goia joz. Eta halere, kontaktak badu, kontraste ederrean, samurtasun puntu bat, sentsibilitate berezi baten emaitza dena, zalantzarik gabe.

Testuan murgildu ahala, jadanik azken urteetako idazle berriengan —Garazi Goia eta Danele Sarriugarte datozkit gogora— ikusitako antzeko zenbait ezaugarri eta baliabide hauteman ditut. Istorio mailan, neska gazte baten biluzte emozionala; tonu zintzoa, ahuleziak agerian uzten dituen; *descensus ad inferos* planteamendua; eta intelektualismoarekiko erakarpen aitortua. Formari dagokionez, egitura zatikatua, letrak erabiltzea izenen orde, sinonimoen pilaketa eta puntuazioaren lehertzea.

Idazleak irakurle helduei zuzendutako lehen obra izanik, estiloak, jakin-mina pizteaz gain, garrantzi nabarmena bereganatzen du, jakina. Estilo landua eta,aldi berean, arina, zeharo atsegina erakusten du Agirrek, atalen laburrak areagotua. Lehen orrialdetik bertatik, musikaltasun goxoak eta sinestesiak blaitutako protagonistaren diskurtso ahaltsuak irakurketan aurrera zain dugun gozamina iragartzen digu. Erritmoa, sintaxia eta hitzen morfologiarekin esperimentatzen ere ausartzen da, benetan poztekoa dena, jarrera horrek molde tradizionalak gainditu eta bide berriei ekiteko arriskua hartzeko prest dagoen autore baten aurrean kokatzen gaituelako.

**Odol mamituak** / [Alaine Agirre](#) / Elkar, 2014

Infernuratzea Javier Rojo / *El Correo*, 2014-12-27

Alaine Agirrek haur eta gazte literaturaren arloko zenbait liburu argitaratu ondoren helduentzako literaturaren munduan murgiltzea erabaki du, eta ahalegin horren ondorioa “Odol mamituak” nobela dugu. Idazlan honetan infernuratze baten kontaktarekin egiten dugu topo, bertan azaltzen baitzaigu zein izan den protagonistaren ibilbidea prozesu psikotiko batetik pasatzen delarik. Protagonista emakume bat da eta ez dugu bere izena ezagutzen. Izan ere, nobela honetan pertsonaia guztiek letra bakarria dute izentzat. Pertsonaiek erakusten duten anonimotasun horrek guztiz esanguratsua dirudi, izenik gabe agertzerakoan pertsonaiek beren identitateak galtzen baitituzte. Buru-gaixotasunak indartzen duen bestelakotze prozesu baten erdian topatzen dira pertsonaiak eta ez dira ‘beraiek’, baizik-eta gaixotasunak beraiengandik sortu dituen ‘beste batzuk’. Nobela bost ataletan zatikatuta dago eta antolamendu hau prozesu psikotikoaren isla da. Bertan ikusiko dugu nola protagonista ulertzen ez duen putzu batean katigatuta dagoen, nola geratzen den mila zatitan hautsita. Eta haustura hau gertatu ondoren, nola saiatzeko den psikiatra baten laguntzarekin bere burua berreraikitzen, jakinda agian ez duela guztiz lortuko. Alaine Agirreren helduentzako lehen liburua da hau, eta idazleak ahalegina egin du lehen emaitza ohiko narrazio lau eta sinpleetatik aldendu dadin. Adibidez, ahots narratibo desberdinak nahastu ditu kontaktetan, nahasketa honek barne logika bati jarraitzen diolarik. Idazketa dela-eta, garrantzia handia eman dio sinonimoen erabiltzeari. Sentimendu edo sentsazio berbera hiru edo lau hitzekin azaltzerakoan, sentimendu hori azpimarratuta geratzen da, sentsazioa indartuta. Kontuan hartuta idazlea oso gaztea dela (90koa da), hasiera honek literatur ibilbide interesgarri baten abiapuntua dirudi.



Seguru zaude? Liburu hau irakurri nahi duzu? Uste duzu ez duela eragin edo ondoriorik izango zugar? Munduko Osasun Erakundeak XXI. mendearen hasieran esan zuen buruko gaixotasunen kopurua handitzen joango dela mende honetan zehar. Depresioa da buruko gaixotasun zabalduena eta 2020rako ezgaitasunerako bosgarren kausa izatetik bigarrena izatera pasako zela esan zuten, eta honen aurretik bihotzeko gaitzak baino ez zirela egongo. Liburu honetako protagonistak psikosia du baina, ez depresioa. Errealitatearekiko ukipen falta. Haluzinazioak, eldarnioak eta pentsamenduaren nahasteak. Eta bost kapitulutan kontatzen digu bere prozesua, 100 ataletan eta alfabetoaren letra guztiak erabiliz izendatzen dituen pertsonaien laguntzarekin, hondoa jo zuenetik zulotik irten zenera arte.

Duela hiru urte argitaratu zuen Itxaso Martinek *Ni, Vera* eleberria. Bertan emakumeen eta zoramenaren arteko lotura agertzen zen helduarotik zahartzarora eta perspektiba historiko batekin. Alaine Agirreren lanean ordea, emakume gaztea eta bere bilakaera psikologikoa dira protagonistak eta subjektu haragiztatua da ardatza, “Gorria” deitzen duen minak, gaixotasunak, bere gorputza gorpu zelan bihurtzen duen eta gorpua gorputz izatera nola bueltatzen den kontatzen zaigu bere lehen eleberrian.

Liburuaren azalean daude gakoak, haien artean *Odol mamituak* izenburua, gorputzaren fisikotasuna agerian jartzen duena, bere jario eta okelekin: “Eta odolarekin erdi disolbatuta ateratzen zaizkizu arantza, azazkal, metal, kristal zatiak; gatzatutako odola da, mamitua, baina, aldi berean, Gorria da, zure barrutik, zaurietatik, irteten”. Hala ere, gaixorik, itota eta lokartuta dagoenari bihotza eta klitoria esnatuko zaizkio narrazioak aurrera egin ahala.

Hiru argazkitan laburbil daiteke gure protagonistaren bidaia: “Maindrearen kontrako gerran” ohean izerdi, odol eta negar malkotan blaituta eta akituta dakusagu hasieran. “Animalia gosetua hiltegian” psikiatrikoan egunean gosea eragiten dioten zazpi-zortzi pilula hartzen ditu eta etxeko zapatiletan joaten da talde-terapiara gero. Azkenik, “itzalean itsatsirik dauzkan harriak arrastaka daramatza” eta bizitzaren puzzlea osatu nahian dabilen neska gaztea da, “iraganeko konkistatzaileen arrastoak” gogoratuz baina bidea eginez.

Hitz jario eta zerrendak psikiatrarekin dituen elkarrizketekin tartekatzen dira, esaldi bakarreko atalak orri bat baino gehiago dituztenekin, lehen-bigarren-hirugarren pertsonetan narratutako pasarteak daude, hasieran identifikazioa bilatzen dutenak ni-a eta zu-a tartekatuz, eta istorioan aurrerago distantzia ipintzen dutenak, umore printzak eta sexu eszenak tartekatuz, olatuen joan-etorriarekin gertatzen den bezala.

Beraz, ondo pentsatu liburu hau irakurri nahi duzun. Esan bezala, XXI. mendeko gaitzak dira antsietatea, depresioa, egungo bizimodu eta harreman motek ekarri dizkiguten gaixoaldiak. Eta agian zu horrelako batean zaude-egon zara-egongo zara, edo zure inguruko baten bat. Eta mingarria izango da hau irakurtzea. Zure barruan zerbait mugitu daiteke. Hortaz, aldeztu aurretik irakurri nola erabili sendagai-eleberri hau eta galdetu botikan —Miren Agur Meaberen hitzaurrea irakurri—, abisatu dizugu.

## ***Maite Gurrutxagak eta Alaine Agirrek albumetako Lazarillo saria irabazi dute***

2015-10-29 / Berria

**L**ITERATURA. Album ilustratuetako Lazarillo saria irabazi du Maite Gurrutxagak ilustratu eta Alaine Agirrek idatzitako *Martin* lanak. Orotara, 51 album aurkeztu dira lehiaketara, eta epaimahaiak «testuaren eta ilustrazioaren arteko harmoniagatik, pertsonaien adierazkortasunagatik, eta desberdintasunari eta inozentziari egiten dioten omenalditxoan igortzen duten sentiberatasunagatik» erabaki du Gurrutxaga eta Arrigeren *Martin* saritzea.

## Galtzaberri



Maite Gurrutzagak eta Alaine Agirrek irabazi dute Lazarillo 2015 Album Ilustratua saria 2015eko Lazarillo Album Ilustratua Saria irabazi du Maite Gurrutzagak ilustratu eta Alaine Agirrek idatzitako Martín albumak. 51 lan aurkeztu dira lehiaketara eta guztien artean Gurrutzag eta Agirrerren lana hautatu du epaimahaiak testua eta ilustrazioaren arteko armoniagatik, pertsonaien adierazkortasunagatik, eta, desberdintasunari eta inozentziari egiten dioten omenalditxoan igortzen duten sentsibilitateagatik.

Epaimahaia OEPLI osatzen duten Espainiako lau hizkuntzetako atal bakoitzeko ordezkari banak osatzen dute. Aurten kide hauek izan ditu: Reina Duarte (OEPLIko presidentea); Margarita Mateu (ClijCat), Sara Moreno (Consejo General del Libro), Xosé Perozo (Galix) eta Concetta Probanza (Galtzagorri Elkarte).

Iaz, Maite Mutuberriak irabazi zuen sari hori Marta Nuñezek idatzitako El país donde habitan las cigüeñas lanari egindako ilustrazioengatik.

1958an Instituto Nacional del Libro Español erakundea hasi zen lehiaketa hau antolatzen. Ondoren, 1986an, OEPLI hartu zuen hori antolatzeko ardura Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntzarekin. Bi kategoria ditu: "Album ilustratua" eta "Sorkuntza literarioa", bakoitza 2.500€ko saria da. Sari hau da estatu mailan Haur eta Gazte Literaturako saririk zaharrena.

## Ganadoras del Premio Lazarillo de Álbum 2015

Babar • 02/11/2015

El 21 de octubre se falló el Premio Lazarillo 2015 en la modalidad de Álbum Ilustrado. Este galardón, convocado por la Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil ([OEPLI](#)), con el patrocinio del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, recayó sobre el proyecto titulado *Martín*, con texto de Alaine Agirre Garmendia e ilustraciones de Maite Gurrutzaga Otamendi. El jurado estuvo integrado por Reina Duarte, como Presidenta de la OEPLI, y por Margarida Mateu, Sara Moreno, Xosé Perozo y Concetta Probanza, en representación de las cuatro secciones territoriales de la OEPLI. Se seleccionó la obra ganadora entre los 51 proyectos presentados, destacando de forma unánime la armonía entre el texto y la ilustración, la expresividad de los personajes y la sensibilidad que transmite haciendo un homenaje a la diferencia y a la inocencia.

La ilustradora, [Maite Gurrutzaga](#) (Amezketeta, 1983), estudió Bellas Artes en la EHU de Leioa y en la UB de Barcelona. También en Barcelona cursó los estudios de ilustración de mano de Ignasi Blanch, y comenzó a ilustrar libros en el 2008. Desde entonces ha iluminado obras de escritores como Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Karlos Linazasoro, Leire Bilbao, Juan Luis Zabala... entre otros.

En 2014 ganó el Premio Euskadi de Literatura en la categoría de Ilustración de Obra Literaria, por el cómic *Habiak/Nidos*, publicado por Txalaparta y basado en la obra de teatro *Gizona ez da txoria* de Dejabu Panpin Laborategia.

La autora del texto, Alaine Agirre (Bermeo, 1990), ha publicado dos novelas para adultos: *Odol mamituak* (Cuajos de sangre, 2014) y *X hil da* (X ha muerto, 2015). En el campo de la literatura infantil y juvenil ha publicado: *Nire potxolina maitea* (Mi querida pocholina, 2013); *Letra txarra daukat eta zer?* (Tengo mala letra, ¿y qué?, 2014); *Nora joan da aitona?* (¿Dónde ha ido el abuelo?, 2014), *Hau ez da zoo bat* (Esto no es un zoo, 2015 – Ganadora del Premio Xabier Lizardi de Literatura Infantil y Juvenil) y *Bihotza lo daukat, eta zer?* (Tengo el corazón dormido, ¿y qué?, 2015).

El Premio Lazarillo, el más antiguo en la literatura infantil y juvenil, fue creado por el extinguido Instituto Nacional del Libro Español en el año 1958 con el fin de estimular la creación de buenos libros para niños y jóvenes. Desde el año 1986 es la OEPLI la encargada de convocarlos anualmente, en dos modalidades: Álbum Ilustrado y Creación literaria, con una dotación de de 2.500 euros cada una.

